

Bestak Hergarain eta Ameriketan

E.: bazitxun ordian bestetan eta borroka ixtorio, ta...

M.: ah ba, ta joka.

E.: joka denak.

M.: leeno ola zen, eh! pasoka (irriak).

E.: ez zuxun barkamenik ordian.

M.: bon, bena beden, ez zien ganitik eta ateatzen; oai, aldiz, ez jeusendako eta ganita ateatzen dute, penible da, eh, kusten tzulaik gazte atzu nola garbitzen duzten, pua!

E.: geo bihamunian, berdin, elgarren lagun berritz ere.

M.: bo, aalaz, atxikitzen zuten, eh!

E.: atxikitzen zuten, eh!

M.: ba araz! Zauriak eta finitu artio, ta eh! Menturaz ondoko igandian berriz baketzen, beste aten kontra artzeko,

E.: ordian aitatamek ukanen zixien lotsa edo zeit edo, beldurra...

M.: oai bauzu beldur geio, eh! ze, otoekin ta ez dakizu osoik jinen den e deus e, leeno tout au plus zer zuten, bizikleta? Ta ono gerla denboran bizikleta ziena... Xantza zien, eh!

E.: ez zela guti.

M.: ez, bat-edo bazen, eta sei... Ez, bost mutiko bazitien.

E.: bost?

M.: bost gazte, ba, ta “gue etxean, jakizak, bakotxak beren bizikleta badie!” mutiko ek debrouillatiak zien nunbaitik sosa iteat, bakotxak beren bizikleta, eta ez zen etxe guzitan ala, eh! eta ua fierxko zen bere putikoez.

E.: lehen bestak ere aise azkarrago izain zitxun oai bano, aise handio bestak.

M.: ah ba, ala ere, joaiten ziren eta ez ziren etxeatzen, egoiten ziren baten etxean eta bestian etxean, gomito ta adixkide, ta ez zen joaiteko xantzaik etxeat.

E.: lagunen etxetaat, ez?

M.: ba, ta geo biamun goizian mozkor-salda bazen, ua badakizu zer zen? Mozkor-salda. Baatxuri-salda zen, bana biper gorri brauki ta harek mogiazten zien ba jendia!

E.: ze ona, bear dixit ori erran ene lagun. Mozkor-salda.

M.: oai le piment d’Espelette bauzu, bana ez du pikante, eh, biziki.

E.: ez diela? Baixi aski, eh!

M.: ba, anitz gazteindako ba, bena biper gorria jakizazu etxetan iten zelaik, pikante zien, eh, eta iten zien oriek eta xingarren, baizu, ingurian ezarzeko-ta.

E.: ba, ba, ba, ba.

M.: emaiten zien xingarrari gustu huna, na pikantiak, eh!

E.: so ixu.

M.: zuk ez zu, koños, biper pikante jan duzu sekulan?

E.: agitu ziaxu ba, agitu ziaxu.

M.: ah bon?

E.: behin janik eta geo hua ezin irentsiz.

M.: hemen guk ezautu duu familia bat eta biper pikantenetaik zuzten beti.

E.: bethi.

M.: izerdi artzen zien jaten, izerdi, gero!

E.: hale jan.

M.: ta behin iiltzen ginien egunka mutiko etaik bat, eta bagindien gertatu onddo bat... Biperrondo bat arrunt pikante, “to, hau beiratuko diau haindako”, ta “to, hago inxtant bat, hik maite baituk, to, oai xerbitxatuko ugu, to ola”. Jaten du, bof, kuia ustel bat, ez zen aski pikante aindako (irriak), eta hek zien hiru anaia, hiruak berdinak, bitxi da, eh!

E.: ze digestion klase iten zixien horiek!

M.: izerdi artzen zien jaten, eta heen uzta hua zen.

E.: gero bestetan jantzan artzen zinezten ziek, edo ez biziki?

M.: nik ez dut sekulan biziki jantza andeatu, Gasnatein nintzan ogoi urte artio, gero soldado Marrokan nintzan, soldadogoan e zombaitzuk ikasten dute, guk, zapeta haundiekin ginen an, eta frantses guti ginen tokian; marrokanoen artian ginen, ta geo Ameiketat, ah gue jantza.

E.: horixet, bena ba, iten zinuzten bestak eta ola?

M.: eh?

E.: Ameriketean iten zinuzten bestak-eta?

M.: ba, kotsia, bena ez zu ardura joan bear,

E.: bestañez ez bitzen lanik egiten.

M.: ah, ta gostatzen.

E.: eta gostatzen.

M.: ez zu sosik iten, eh, an, eh, ez bauzu pixka at beiratzen.

E.: xautzen ba ausarki.

M.: ba, ba, anitzak artzaingoan ez laketzen, ta hirian lanian artzen zien, eh! Banan geo bizia ederro pasatzen zuten, bena ez zuten sos geio, eh! Enpleatzen zuten, bizi zien, voilà.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala